# AÑITARI DONKITUA.

—¡Biotz nereko aurcho
Aingeru maitia,
Amachoren besora
Etorri zaitia!—
Aurchuak kasorikan
Ez diyo egiten,
Bere maramarekin
Dabill zoratutzen.
Esanaz ñiñiari
Diyola jarriko,
Soincho berri churiya
Apapa juateko.
Amak ikusirikan
Ala jostaketan,
Joan eta artu zuben
Bere besoetan;
Esanik:—¡Izar nere
Zoragarrizkua!
¿Ez aldezu aditu
Amachon ojua?—
—Ñiñiakin nebillen,
Amacho, jostatzen,
Ez nuben uste iñork
Zirala deitutzen.—
—Ibiltzen diran aurrak
Bakarrik kanpuan,
Zomorruak eraman
Oi ditu zorruan:
¿Ez altzenduben atzo
Ikusi Juanita,
Zomorrok eramaten
Zorruan sartuta?—
Es̄ amacho neria,
*Es̄nuben ikus̄i,*
Bañan ez det egingo
Geiago *iges̄i;*
Ñiñiakin echian
*Nais̄ni* jos̄tatuko,
Soiñcho pollit pollitak
*Dis̄kat* nik jos̄iko;
Eta gero plas̄ara
S̄urekin joateko,
*Janchiko* det polliki
Nik eramateko;
Kirriki, t̄iki, t̄iki,
Danboliñ s̄oñuban,
Anchen dantzatuko det
Nere besochuan;
Apaldutzera gero
Gera etorriko;
*Erres̄uak* eginta
*Llollo* egiteko.

FELIPE CASAL OTEGI.